


LAUKIZ eta MARURI-JATABEko EUSKARA ZERBITZUA

eUTSI!

2008ko UZTAILA - 20 zk.

**“Negua ez bada negu
Udak ere huts”**



GURASO ESKOLAK

Otsailetik maiatza bitartean, hilean behin guraso eskolak deritzon programa aurrera eraman da Laukizko Euskara Zerbitzuak antolatuta. Hauxe da bertaratu den guraso baten hitzak:

“Hilabete hauetan zehar Guraso Eskolak egon dira liburutegian. Hauen helburua gurasoak sexualitateari buruz ditugun galderei erantzuna ematea izan da. Baina lortu duguna askoz gehiago izan da eta parte hartu dugun gurasoen artean oso erlazioa berezia sortu da.

Eskola hauetan, ariketa ezberdinen bidez, norberak bere burua hobeto ezagutzen lagundu digu, modu honetan askoz errezago egiten zaigu gure umeen galderei erantzuna ematea. Eskola hauek ematera Ismene izeneko neska oso berezia etorri da eta transmititu digun hainbat gauzen artean; gure seme-alabei egiarekin eta benetan norberak sentitzen duenarekin erantzun behar diegu eta ez erantzun egokia suposatzen denarekin. Benetan oso tarte bereziak izan direla eta egon garenak, paper batean islatzea ezinezkoa den zerbait eraman dugu gurekin. Berrito egongo balira Guraso Eskola hauek ni izango nintzateke lehena joaten eta zuei aukera sortzen bazaizue ez galdu, ez zarete damutuko eta!”

Sexualitateaz gain, drogak, arazoan ebazpena eta sexu indarkeriaz aritu dira. Pena bakarra, jende gutxi bertaratu dela.

Irailetik abendura bitartean, berrito egongo da aukera, oraingo honetan Maruri-Jatabeko Kultur Etxean. Espero dugu, jende gehiago erakartzea eta ekintza arrakastatsua izatea!

UDALEKU IREKIAK

Datorren uztailaren 1ean eta azken urteotan ohikoa denez, Laukiz eta Maruri-Jatabeko 4 eta 12 urte bitarteko neska-mutiek aukera paregabea izango dute ondo pasatzeko eta ekintzak ezberdinak egiteko euskaraz. Hilabete osoan zehar, Maruri-Jataben 10etatik 13.30etara Kultur Etxean eta jubilatuen lokalean, eta Laukizen 10.30etatik 13.30etara Atxispén, ingurumen ekintza ezberdinak, tailerrak, ibilaldiak... egiteko parada izugarria izango dute. Maruri-Jatabeko igerilekura ere joango dira astean behin, gainera aurten, ekintza berriak sartu dira: “Trukemerke”, “Uztalde” “gurpilaren eguna” “Uraren eguna”...eta txango txikiak. Ea aurten eguraldiak laguntzen digun guztiaz gozatzeko!






TOKIKO AGENDA 21eko FOROAK MARTXAN LAUKIZEN eta JATABEN!

2008an zehar jarraitu da Foroekin Jataben eta Laukizen berriro hasi dira martxan. Bai herri batean zein bestean, jendearen partaidetza nabaria izan da eta ideia berriak eta freskoak ekarri dituzte: Jataben Kultur Etxeko programazioan laguntzeko eta Laukizen Atxispe izeneko lokalean zer nolako erabilerak eman nahi diren erabakitzeko.

Maruri-Jatabeko hurrengo batzarra urriaren 29an izango da eta Laukizkoa ere, urriaren amaieran ala azaroaren hasieran. ETORRI ETA PARTE HARTU!!



URIBE BUTROE ZERBITZU MANKOMUNITATEAREN LOGOTIPOA DISEINATZEKO LEHIAKETA

Orain urtebete, Arrieta, Bakio, Fruiz, Gamiz-Fika, Gatika, Laukiz, Maruri-Jatabe eta Meñakako Udalek gure herrien garapenean lan egiteko asmoarekin, ibilbide amankomun bat hasi genuen Uribe Butroeko Zerbitzu Mankomunitatearen bitartez. Udalak esparru ezberdinetan zerbitzuak ematen hasi dira, bai ingurumena zaintzeko, bai gazterian, etab.

Erakunde hau apurka-apurka bere garrantzia hartzen doa eta bere irudia gure udaletatik kanpo garatzeko asmoarekin, korporazio irudia jorratzeko proiektua martxan jarri dugu. Hori dela eta, Mankomunitateak bere logotipoa diseinatzeko lehiaketa antolatu zuen, Erakundearen adierazgarria izango den irudia bilatzeko asmoz.

Guztira, 8 proposamen aurkeztu dira eta hemendik gutxira jakingo dugu, alde batetik nortzuk izan diren saridunak (bi sari daude: 600 € eta 300 €koa) baita zein izango den Mankomunitatearen behin betiko logotipoa.

LAUKIZ

SAN JOAN ETA ARGAZKI LEHIAKETA

Pasa den ekainaren 19an, Laukizko Udalak 1go Argazki lehiaketan parte hartzeko epea amaitu zen. "Laukizko bazterrak" izenburupean, guztira 82 argazki aurkeztu ziren, sariak bezain kopuru ederra lehenengo aldia izateko!. Epaimahaia bildu ondoren, honako erabakia hartu zuen:

- 1go saria: "Badator ekaitza" AITOR GALBARRIARTU
- Akzesita Laukiztarrari: "Bukolikoa" M^a JOSE ELORRIAGA

Irabazle biak, laukiztarrak eta biak Aurrekoetxe auzokoak, kasualidadea!

Oinarrietan esan bezala, epaimahaiak kontuan hartu zuen Laukizko bazter esanguratsua izatea, bai arkitekturagatik, ezaguna izateagatik, bai ondare historikoko kontua izateagatik.

Sari banaketa, ekainaren 23an egin zen Laukizko Udaletxean, Aikok prestatutako umeentzako jokuen ostean eta txokolatea hartu baino lehen. Sariak banatu ondoren txokolatea jateari ekin genion denok eta San Joan sua piztera gindoazenean...euria agertu zen gonbidatuta ez bazegoen ere!. Beraz, arratsalde ederra pasa genuen, azken uneko tanta horiek izan ezik!

Espero dugu datorren urtean euririk ez agertzea eta San Joan sua behar bezala ospatu ahal izatea.



LIBURUTEGIKO DINAMIZAZIOA

Urtariletik ekainera, hilabetero, liburutegia dinamizatzeko tailerrak burutu dira. Ekintza guztietan prozesu berdina mantendu da, baina gai ezberdinak jorratuz.

Lehenengo "Hizkitzuroren" eskutik liburuen artean utzitako aztarnak bilatu behar zituzten eta gero hauek elkar-tuz mezua irakurri ahal zen. Jarraian mezu honen inguruan garatzen ziren ekintza guztiak. Tratutako gaien artean inprenta eta interneta egon dira, beste batzuen artean. Tailer hauen helburua, modu didaktiko batean, umeen artean liburutegia erabiltzeko ohitura sortzea izan da, eta kopuru handi batean lortu dugula esan ahal dugu.

Bestaldetik, ekintza hauetaz gain, Liburu eguna ospatu genuen Laukizko liburutegian honako programa honekin:

Apirilak 18: Lehenengo **KEZKAMUXELEN** istorioa entzun genuen; Kezkamuxelak Guatemalatik datoz. Han umeak beldurra direnean panpinatxo txiki hauei euren beldur kontatzen dizkiete eta gero burkoaren azpian jartzen dute, honela kezkamuxelak umearen beldurrak hartzen ditu eta oso lasai egiten du lo. Istorioa entzun ondoren kezkamuxelak egiteko tailerra egon zen eta hau amaitzerakoan parte hartu zuten guztiei Guatemalatik ekarritako kezkamuxelak banatu ziren.

Apirilak 23: LIBURU TRUKE EGUNA. Liburutegiaren kanpoaldean liburu betetako mahai batzuk jarri ziren eta etxe-tik ekarritako liburuak trukatzeko aukera egon zen. Giroa, eguraldiak lagunduta, oso atsegina izan zen.





MARURI-JATABEKO KULTUR ETXEA

Pasa den maiatzaren 9an, Maruri-Jatabeko Kultur Etxeak bere atea zabaldu zituen lehenengoz. Ahaldun nagusia eta diputatu, zuzendari eta alkateez gain, Jatabeko herritarrak ere bertaratu ziren ekipamendu berria nola geratu den ikusteko.

Orain erabili eta disfrutatu baino ez da geratzen. ZORIONAK!!



WIMAX MARURI-JATABEN

Maruri-Jatabeko Udalak “konekta zaitez@banda zabalak” izeneko proiektura atxikitu da. Aipatutako programaren helburua Euskal Autonomi Erkidegoan banda zabalik ez duten herriek halako azpiegituraz hornitzea da. Proiektua burutzeko ardura Eusko Jaur-laritzako Ogasun eta Herri Administrazio sailari atxi-kita dagoen Itelazpi, S.A, elkarte publikoak eta ko-merzializazioa Euskalteleren eskutik izango da.

Pasa den ekainaren 10ean arratsaldeko zazpi eta erdietan kultur etxean bildu ginen ia 30 pertsona gai honi buruzko informazio gehiago jasotzeko. Xabie-rrek (etorri zen Euskalteleko teknikoa) Wimaxen era-bilera, kuotak, seinale zonaldeak, azpiegituren ezau-garriak azaldi zizkigun, bertan bildutakoei zalantza guztiak argitu zizkigularik. Programa honen bidez, ekipamendua eta instalazioa dohainik izango zela kontatu zigun Xabierrek, ia 600 €koa.

Apuntatzeko eta informazioa jasotzeko telefono zuzena ere eman zigun, honako hau: 943318601. Jendea oso pozik ate-ra zen bileratik, zeren eta orain herritar askok wimaxi esker internet eta linea eduki dezakete eta Euskaltelen eskutik.



LIBURUTEGI IBILTARIA

Maruri-Jatabeko Udaleko Euskara Zerbitzuak ekainaren 16tik irailaren 12ra luzatuko den haurrentzako aisialdi programa bat jarri du martxan berriro hirugarren urtez.

Igerilekuetan, astelehenetik ostiralera eta 16.30etatik 19.30etara garatzen den programa honek, haurren irakurketerako eta batez ere euskaraz irakurtzeko zale-tasuna sustatzea du helburu.

Bertan, hezitzaile baten laguntzaz, haurren adinentzako

liburuak eta jokoak aurkituko dituzte igerilekuetara hur-biltzen diren haur eta gazteek. Aukeraturiko liburuak, irakurketerako egokituriko espazio alai eta eroso batean irakurri ahal izango dituzte.

Era berean, astean behin, ekintza bereziak garatuko dira: ipuin kontaketa, joku kooperatiboak eta abar.

Azkenik, gurasoak zuen seme-alabekin batera jolastu eta irakurtzera gonbidatzen zaituztegu.”



AGENDA

LAUKIZ

Irailaren 26tik 29ra

Laukizko Jaiak

Urriak 4, zapatua:

Laukizko umeen euskal jaiak:

- Goizean "Indio apatxen herrixka"

- Arratsaldean:

- Txotxongiloak: *Birus erasoan!*
- Umeentzako berbena: *"Txanogorritxu rock"*

Urriak 5, domeka

"Laukiz Kulturala"

Goizez: Zanpantzarrak

Arratsaldez: "Nortasunaren bila" Antzerki musikal, Antzart taldearen eskutik

MARURI-JATABE

Abuztuaren 8tik 11ra

Maruri-Jatabeko jaiak

Irailak 14

- Maruri-Jatabeko mendi martxa

- Nagusien omenaldia-bazkaria

MARURI-JATABEKO KULTUR ETXEKO PROGRAMAZIOA:

Saio guztiak 18.00etan

Irailak 20, zapatua: Zientzia tailerrak-ikuskitzuna

Urriak 18, zapatua: Elvi sabelhiztuna

Azaroak 22, zapatua: Txotxongiloak: "Birus erasoan"

Abenduak 20, zapatua: Marsel Magoa "Magia Potagia"

ALE HONETAN

PARTE HARTU DUTE

MARIA FERNANDEZ

GARDABERA

IRIS PATXO

SAIOA SANZ

FERNANDO UNIBASO



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

ABESTU GEUGAZ!!

PIXKA BAT ES MUCHO

Uda honetan

Zurekin estrenatuko naiz.

Hotel txiki batean,

Zure etxean edo nirean.

Zurekin, Karlarekin, edozein girirekin
Mundu guztiarekin praktikatu nahi dut

Astronauta, fisikari, perretxikolari

Groseto nudista, errotari, matahari

Punky, yanki, ebribadi, igual dio!

Anima zaitetz laguntxo,

Ezpainetan euskara

Goazen pixkabaesmucho.

Uda honetan bai

Pixkabatesmucho.(bis)

Hurbildu zaitetz mutil,

Pixkanaka hasiko gara.

Ta gero guztiekin

Disfrutatu nahi dut pixka bat.

Jazz dantzari, abeslari edo segalari,

Idazkari, pelotari, sartu la direkta!

Sukaldari, gidoilari eta rastafari,

Burguer saltzailarekin, zuzendari

Chekepare, andra mari, igual dio!

Anima zaitetz....(bis)

Kritikari ta musulari ta txirrindulari,

Argentinoarekin, "El que dice boludo"

Joxe Mari, kazetari, patata ikerlari,


Sagarra manzana, ikatza carbon,

Pixka bat es mucho eta asko mogollon.

Anima zaitetz... (bis)



MARURI-JATABEKO
UDALA



LAUKIZKO
UDALA



EBPN
Euzkoaz biziberritzeko plan nagusia
plan general de promoción del uso del euzera.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA